

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Mantenurako udal laguntzen programa, 2018-2021

Laudio udaleko 0483 zenbakia 2018ko martxoaren 13ko Alkate-Udalburuako dekretuaren arabera mantenurako udal laguntzen programaren oinarri arautzaileak 2018-2021 lau-urteko ekitaldia.

OINARRI ARAUTZAILEAK

Xedea

Mantenurako laguntzen udal programak garrantzi berezia du babesgabezia egonagatik, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) edota etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten, baina beharrik premiazkoenak asetzeko laguntza ekonomikoa behar duten pertsonentzat.

Laguntza hauei esker, DBE eta EPO arautzen dituzten legeetan aurreikusten ez diren egoera zehatzei aurre egiteko aukera dago. Horretarako, jarduteko prozedura desberdinak arautu dira programa honetan, familiako arazoan edota arazo pertsonalen aurrean erantzun bizkor, eraginkor eta egokiak emateko xedearekin.

Onuradunen betebeharrak eta obligazioak.

Betebeharrak

Oro har, pertsona eskatzaileak laguntzen onuradun izan ahalko da adinez nagusi denean eta betebeharrak hauek betetzen dituztenak:

- Laudion erroldatuta egotea, gutxienez, eskaera egin baino 15 hilabete lehenago edo justifikatzea aurretik 10 urtez edo tarte luzeagoan erroldatuta egon izana.

Salbuespen gisa, 6 hilabetez erroldatuta egon izana eskatuko zaie hauei:

- Adingaberen bat euren ardurapean duten bizikidetzaren unitateak (aurrerantzean, BU).

- 65 urtetik gorako pertsonak.

- baliaezintasuna eragiten duen gaixotasuna edo ehuneko 65eko ezgaitasuna duten pertsonak.

- Diru-laguntza ematen den ekitaldian BUak jasotzen dituen diru-sarrerak ez gainditzea DBE-ren ehuneko 75.

- Diru-laguntza ematearen aldeko txosten bat izatea, udalaren gizarte zerbitzuek emanda.

Laguntza ematen jarraitzeko baldintza izango da horren beharra frogatzea; diru-laguntza emateko hileroko proposamenaren jarraipen-txosten sozialean adieraziko da horren beharra. Programa honetan sartutako laguntza guztiek 2018-2021 lau-urteko urte bakoitzaren 31ra artekoa iraungo dute.

Betebeharrak

Pertsona onuradunaren betebeharrak dira jarraian zerrendatzen direnak:

- Jasotako prestazioa eman den xederako erabiltzea.

- Prestazioa jasotzeko betebeharreri dagokienez, gertatzen den edozein gorabehera jakinaraztea.
- Betebeharrak ez bete arren jaso diren laguntzak edota zenbateko ezegokiak itzultzea.
- Dagokionean, zorrak aitortzeko dokumentua sinatzea.
- Dei egiten zaionean administrazioaren aurrean agertzea eta Administrazioarekin lankidetzan aritzea.

Laguntzen zenbatekoa

Mantenurako udal laguntzen programaren guztirako kredituak 2018-2021 lau-urteko ekitaldi-urte bakoitzeko deialdian finkatuko da. Gastua babestuko duen aurrekontuko diru saila bada Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloko aurrekontuko 0700-2311-480.20.

Eskatzaile bakoitzari eman dakioken diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzeko (eta orokorki ezarri diren gehienezko zenbatekoak alde batera utzita) alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Eskatzailearen nahiz BUko gainerako kideen baliabideak.
- Egin beharreko edo egindako gastuen zenbateko zehatza.

Eman beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, BUak hilean jasotzen dituen diru-sarrerak kendu beharko zaizkio diru-laguntza ematen den ekitaldian indarrean dagoen DBEren ehuneko 75ari, betiere, BUaren kide kopurua kontuan hartuta.

Aurrekontuan eskuragarri dagoen diruaren arabera murriztu ahalko da gehienezko zenbateko aplikagarria, baita gizarte zerbitzuen balorazioaren arabera ere. Gizarte Zerbitzuek horri buruzko txosten-proposamena emango dute.

Azpiprogramak, diruz lagun daitezkeen gastuak eta zenbateko espezifikoak.

1. Adingabeak Haur Hezkuntzako 1. zikloan, DLHn edo DBHn dituzten familiak.

1-1 Diru-laguntza aurreratzea Haur Hezkuntzako bekaren aurretiatzko ordainketari aurre egiteko (0-6 urte).

Hemen sartuko dira haurreskolarako (0-3 urte) eta eskola-materialerako (3-6 urte) ordainketei aurre egiteko eskaerak.

Programaren onuradun izateko baldintzak:

- BUaren diru-sarrerak ezin dituzte gainditu DBEko 2018-2021 lau-urteko ekitaldi-urte bakoitzean ezarri den baremoa.

- Ikasturtea hasi ondoren ikastetxean hasten diren (hau da, beka eskatzeko aukerarik ez duten) eta BUan DBE, EPO edo GLL jasotzen duten ikasleek eskola-materiala erosteko diru-laguntzak eskatu ahalko dituzte.

Laguntzen zenbatekoa:

Gizarte zerbitzuek emandako aldeko txostena duten kasuetan, Eusko Jaurlaritzak eskola-materialerako ematen dituen beken zenbatekoa aurreratuko da (2018-2021 lau-urteko ekitaldi-urte bakoitzean, unibertsitate arteko ikasketetan ikasleak eskolaratzeko ikasketarako beka eta laguntzak).

1-2 DLHri eta DBHri dagozkion beste kasu batzuk (6-16 urte)

Programaren onuradun izateko baldintzak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- Derrigorrezko hezkuntza etapetan matrikulatuta dagoen eta bizikidetzeta unitatean DBE edota GLL jasotzen duten ikasleek eskubidea izango dute eskola materiala erosteko ordaindu behar duten dirua itzuli dakien, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ofizialki ematen duen beka

ordaintzen zaien arte. Bekaren zenbatekoa banku-kontuan sartzen zaienean, udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko dute.

- Ikasturtea hasi ondoren ikastetxean hasten diren (hau da, beka eskatzeko aukerarik ez duten) eta BUan DBE edo GLL jasotzen duten ikasleek eskola-materiala erosteko diru-laguntzak eskatu ahalko dituzte.

- Edonola ere, BUaren diru-sarrerak ezingo dute gainditu DBEren ezarri den baremoa.

Laguntzen zenbatekoa:

Gizarte zerbitzuek emandako aldeko txostena duten kasuetan, Eusko Jaurlaritzak eskola-materialerako ematen dituen beken zenbatekoa aurreratuko da lau-urteko ekitaldi urte bakoitzean).

2. Estimulazio goiztiarrean edo psikoterapia tratamenduan dauden adingabeak dituzten BUak.

Programaren onuradun izateko baldintzak eta diruz lagun daitezkeen gastuak:

- 5 urte edo gutxiago dituzten umeen aitek, amek edo tutore legalek eskatu ahalko dituzte estimulazio goiztiarreko unitateak ordaintzeko diru-laguntzak.

- Ordaindu egingo dira tratamendu-zentrorako joan-etorriak, garraibide publikoan.

- Arreta psikologiko jarraitua jasotzeko diru-laguntza eskatu ahalko dute DBHn matrikulatutako umeen (6-16 urte) aita, ama edo tutore legalek, betiere, umeen egoerak ikastetxean eta ikastetxeko giza baliabideekin edota baliabide materialekin edo osasun mentaleko sare publikoan bideratu ezin den tratamendu psikologikoa eskatzen duenean.

Bideratze-txosten pediatriko edo neurologikoa eta psikologikoa edo psikiatrikoa eskatuko da.

Laguntzen zenbatekoa:

Behin BUaren diru-sarrerak aztertuta, diru-laguntzaren bidez finantzatu ahalko da tratamenduen kostuaren ehuneko 50 edo ehuneko 75. Laguntza ematen den ekitaldirako ezarri den DBEren baremoaren arabera izango da eman beharreko zenbatekoa, betiere, BUaren kide kopurua kontuan hartuta.

Onuradunek joan-etorrietarako laguntza teknikoa badute, Arabako Foru Aldundiak horretarako ematen duen zenbatekoa aurreratuko zaie eta, onuradunak Aldundiaren ordainketa jasotzen duenean, udalarengandik jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

3. Familia ingurune egokirik gabeko gazteak.

Programaren onuradun izateko baldintzak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- 18 urte baino gehiago eta 23 baino gutxiago izatea.

- 23 urte baino gehiago eta 35 baino gutxiago izatea eta bere kabuz urtebete baino gutxiago bizi izana.

Betebehar espezifikoak.

- BUaren egoerari buruzko txosten psikologikoa, psikiatrikoa edo psikosoziala.

Laguntzen zenbatekoa:

Eman beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, BUak hilean jasotzen dituen diru-sarrerak kendu beharko zaizkio diru-laguntza ematen den ekitaldian indarrean dagoen DBEren baremoaren ehuneko 75ari, betiere, BUaren kide kopurua kontuan hartuta.

4. Adikzioen desohitze prozesuetan ari diren pertsonak.

Programaren onuradun izateko baldintzak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- Adikzioaren batetik desohitzeko tratamendu mediko edota terapeutikoa hasi izana Laudioko udalerritik kanpo.

Betebeharrak:

- Kontrol- eta jarraipen-txosten mediko-soziala.
- Laguntza ematen den ekitaldiko GLLen taulan ezarritako baremoak ez gainditzea 2018-2021 lau-urteko ekitaldi-urte bakoitzean

Laguntzen zenbatekoa:

Ordaindu egingo dira tratamendu-zentrorako joan-etorriak, garraiobide publikoan.

5. DBE jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak.

5-1 Erroldan nahikoa antzintasun ez izateagatik DBE jaso ezin duten pertsonak.

Programaren onuradun izateko baldintzak eta betebeharrak:

- Laudion erroldatuta egotea, gutxienez, eskaera egin baino 15 hilabete lehenago edo justifikatzea aurretik 10 urtez edo tarte luzeagoan erroldatuta egon izana.
- Salbuespen gisa, 6 hilabetez erroldatuta egon izana eskatuko zaie hauei:
 - Adingabe bat edo gehiagoren ardura duten bizikidetza-unitateak.
 - 65 urtetik gorako pertsonak.
 - Baliaezintasuna eragiten duen gaixotasunen bat edo ehuneko 65eko ezgaitasuna duten pertsonak.
- Arreta plan pertsonalizatua sinatua eta martxan izatea.

Laguntzen zenbatekoa:

Eman beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, BUak hilean jasotzen dituen diru-sarrerak kendu beharko zaizkio diru-laguntza ematen den ekitaldian indarrean dagoen DBEren baremoaren ehuneko 75ari, betiere, BUaren kide kopurua kontuan hartuta.

Laguntza hau 6 hilabeterako eman ahalko da eta, erreferentziako gizarte langileak aldeko txostena eman ondoren, beste 6 hilabetez luzatu ahalko da; edonola ere, luzapen hori amaitutakoan, ezin izango da berriro luzatu.

5-2 DBE jasotzeko beste baldintzak batzuk betetzen ez dituzten pertsonak.

Programaren onuradun izateko baldintzak eta betebeharrak:

- 5-a puntuan onuradun izateko adierazi diren baldintza eta betebeharrez gain, bazterketa egoera edo bazterte arrisku diagnostikatua izan behar dute pertsona horiek.

Laguntzen zenbatekoa:

Eman beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, BUak hilean jasotzen dituen diru-sarrerak kendu beharko zaizkio diru-laguntza ematen den ekitaldian indarrean dagoen DBEren baremoaren ehuneko 75ari, betiere, BUaren kide kopurua kontuan hartuta.

Laguntza hau 6 hilabeterako eman ahalko da eta, erreferentziako gizarte langileak aldeko txostena eman ondoren, beste 6 hilabetez luzatu ahalko da; edonola ere, luzapen hori amaitutakoan, ezin izango da berriro luzatu.

6. Egokitze prozesuan dauden gaixo psikikoak.

Programaren onuradun izateko baldintzak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- Baliaezintasuna eragiten duen patologia psikologiko baten ondorioz, tratamenduan egotea.

Betebeharrak:

- Txosten psikiatrikoa, gehi esku hartzeko proposamen arrazoitua daukan txosten soziala.
- Laguntza ematen den ekitaldian GLLrako ezarri den taulako baremoak ez gainditzea.

Laguntzen zenbatekoa:

Ordaindu egingo dira tratamendu-zentrorako joan-etorriak, garraiobide publikoan.

7. Osasun arazo larriak eta adingabeak bere kargu dituzten bikote gabeko pertsonak, familia-larrialdi egoeran daudenak.

Programaren onuradun izateko baldintzak:

- Pertsona bat kontratatzeko laguntzak jaso ahalko du (ezin du senitarteko zuzena izan) osasun arazo larriak eta bere kargu adingaberen bat duen bikoterik gabeko aita edo ama orok, betiere, osasun arazoek eragozten edo asko zailtzen badiote adingabea zaintzea eta familiaren edota gizartearen laguntzarik ez badu.

Betekizunak eta laguntzen zenbatekoak:

- Medikuarien txostena (ahozkoa edo idatzizkoa), gehi esku hartzeko proposamen arrazoitua daukan txosten soziala.

- GLLen taulan ezarritako baremoak ez gainditzea laguntza eman den ekitaldi-urtean indarrean egon dena.

- Adingabeen arretarako gastuak ordainduko dira guraso arduraduna osasun arazoengatik etxetik kanpo dagoen bitartean.

- Astero 100 orduz emango da arreta gehienez ere, eta Etxeko Familia Zerbitzuak ezarri duen prezioa ordaindu beharko da ordu bakoitzeko 2018-2021 lau-urteko ekitaldi-urte bakoitzerako.

8. Gizarteratze ibilbidea egiten ari diren pertsonak, prestakuntza ekintzei lotuta.

Programaren onuradun izateko baldintzak eta betebeharrak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- Gizarteratze ibilbidearen barruan, 50 kilometroko erradioan dagoen beste udalerrri batera joatea eskatzen duen prestakuntza-ikastaroren batera joan behar izatea, betiere, erabiltzaileak ezin baditu ordaindu joan-etorri horien gastuak.

- Arreta programa pertsonalizatu bat sinatuta izatea.

- Laguntza ematen den ekitaldian GLLrako ezarri den taulako baremoak ez gainditzea.

Laguntzen zenbatekoa:

Garraio publikoan prestakuntza-zentrorara egiten diren joan-etorriak ordainduko dira.

9. Lanbideren zigor administratibo baten ondorioz, DBE jasotzeari utzi dioten pertsonak

8 1 aldi berean osasun arazo larri baten ondorioz okerrera egin dezakeen behar larriko egoeran badaude edota bazterketa egoera nahiz bazterketa arriskua diagnostikatuta badute.

8 2 baldin eta zigor administratiboa ez bada axolagabekeriaren ondorio edo ekonomia edota ondare egoerari buruzko informazioa ezkutatzearen ondorio izan, behar larrian badaude eta adingabeak zaintzeko ardura badute.

Programaren onuradun izateko baldintzak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- Laudion erroldatuta egotea, gutxienez, eskaera egin baino 15 hilabete lehenago edo justifikatzea aurretik 10 urtez edo tarte luzeagoan erroldatuta egon izana.

- Inolako baliabide ekonomikorik ez izatea.

- Arreta plan pertsonalizatua sinatuta izatea.

Laguntzen zenbatekoa:

– Eman beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, BUak hilean jasotzen dituen diru-sarrerak kendu beharko zaizkio diru-laguntza ematen den ekitaldian indarrean dagoen DBEren baremoaren ehuneko 75ari, betiere, BUaren kide kopurua kontuan hartuta.

– Laguntza hau 6 hilabeterako eman ahalko da eta, erreferentziako gizarte langileak aldeko txostena eman ondoren, beste 6 hilabetez luzatu ahalko da; edonola ere, luzapen hori amaitutakoan, ezin izango da berriro luzatu.

10. Etxegabetze-jakinarazpen judiziala duten BUak.

Programaren onuradun izateko baldintzak:

• Etxegabetze-jakinarazpen judizial baten ondorioz, ohiko etxebizitza utzi behar duten pertsonak eta familiek diru-laguntza eskatu ahalko dute beste etxebizitza bat alokatzeko gastuei aurre egin ahal izateko, betiere, betebeharrak hauek betetzen badituzte.

Betebeharrak:

- Etxegabetze-jakinarazpen judiziala jaso izana.
- Zorduntze aldietan GLL (alokairurako) edota EPO jaso ez izana.
- Laguntza ematen den ekitaldian GLLrako ezarri den taulako baremoak ez gainditzea.

Laguntzen zenbatekoa:

Bermearen nahiz etxebizitzaren alokairuaren lehenengo hilabetearen ehuneko 100 ere finantzatu ahalko da ordainketa bakarrean; 1.800,00 euro da gehienezko zenbatekoa.

Laguntzak ematea

Programa honetan aurreikusitako laguntzak emango dira udalaren gizarte zerbitzuek benetako behar-egoera frogatu ondoren udal aurrekontuan diru-laguntzak ordaintzeko nahikoa diru dagoela egiaztatu ondoren 2018-2021 lau-urteko ekitaldi-urte bakoitzean..

Prozedura instruitzea: Ebazpen-organoak

1- Tokiko Gobernu Batzarraren ardura izango da mantenerako udal laguntzen programaren oinarri arautzaileak onestea, eta nahitaezko betekizuna izango da diru-laguntzak banakako onuradunei esleitu ahal izateko.

2- Bizi duten egoera sozioekonomikoaren ondorioz laguntza hauen onuradun izateko aukera baliatu nahi dutenek erreferentziako gizarte langilearen aurrean formalizatuko dute euren eskaera.

3- Gizarte zerbitzuek betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, laguntza eman edo ukatzeko txosten soziala emango da, gehienez ere, eskaera udalaren erregistro orokorrean sartu eta hurrengo 20 egunetan.

4- Horrez gain, txostenean teknikariaren proposamen administratiboa eta proposamen politikoa jasoko da, alkate-udalburuak dekretu bidez ebatziko du eta ebazpenaren berri emango zaio onuradunari.

5- Laguntza ematearen aldeko udal erabakian adieraziko da diru-laguntzaren zenbatekoa, zenbat denborarako ematen den eta berrikusi edo berritzeko eguna zein den.

6- Laguntzaren inguruko ebazpena emateko epea bi hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten den egunetik aurrera zenbatuta. Epea agortzen bada esanbidez ebazpenik gabe, interesdunak ulertu beharko du eskaera ukatu zaiola administrazioaren isiltasun bidez.

7- Ukatzeko ebazpena arrazoitua izan beharko da, udalak eskatzaileari jakinarazi beharko dio erabakiaren testu osoa helarazita eta argi adierazi beharko dio ebazpen horren bidez

administrazio-bidea bukatutzat ematen den; gainera, eskatzaileari aditzera eman beharko zaio zer errekurso ipini ditzakeen, zer organori aurkeztu behar dizkion eta horretarako zer epe duen.

8- Laguntza kautelaz edo aldi baterako eteteko edo laguntza azkentzeko, aginduzko txosten soziala eman beharko da.

Ordaintzea

Emate-ebazpenean jasotako baldintzetan bihurtuko dira eraginkor mantenurako udal laguntzen esparruan ematen diren laguntzak, hilero 2018-2021 lau-urteko ekitaldi-urte bakoitzean.

Egindako gastuen justifikazioa.

Emate-ebazpenean onuradunen betebeharrak gisa ezarriko da gastuen fakturak edo egiaztagiria aurkeztea hamabost eguneko epean, ordainketa egiten den egunetik hasita. Halaber, pertsona fisiko edo juridiko jaulkitzailearen zigilua eta izenpea izan beharko dute fakturak edo egiaztagiriek. Epe horretan ez bada justifikatzen diru-laguntzaren ordainketaren xedea, bertan behera geratuko da diru-laguntza.

Diru-laguntzen zenbatekoa 3.000,00 euro baino txikiagoa denez, onuradunak bere erantzukizunpeko aitortza egin beharko du adierazteko egunean dituela Foru Ogasunarekiko betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta itzulketak nahiz zuzenbide publikoko gainerako zorrak (uztailaren 21eko 877/2006 Errege Dekretua, diru-laguntzei buruzko 33/1983 Legearen Erregelamenduari buruzkoa). Onuradunak kitatu gabeko zorrak baditu, salbuespen-egoera hori justifikatu beharko da.

Gastuaren justifikazioa egiten ez bada edo justifikazioa ez bada nahikoa, diru-laguntza itzuli beharko da, diru-laguntzen Lege Orokorren 37. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Errekurtsoak

Indarrean dauden legeetan aurreikusitako errekurso administratiboak eta jurisdikzionalak aurkeztu ahalko dira mantenurako udal laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenen aurka.

Gastuaren jarraipena eta kontrola

Udalak jarraipen etengabea egingo die programa honetako diru-laguntzen onuradunei, egiaztatzeko diru-laguntzen xedea betetzen dutela eta laguntzak emateko eskatzen ziren betekizunak betetzen direla.

Gizarte zerbitzuetako langileria teknikoak programaren martxa kontrolatu eta ebaluatuko dute urtean behin, kalitatea hobetzeko eta erabilera egokia bermatzeko.

Laguntzaren zenbatekoa doitzea

Ez bada egiten eskatutako jarduera, ez bada diru-laguntza osoa erabiltzen ematerakoan ezarri zen xederako edo jardueraren kostuak hasiera batean kalkulaturakoak baino txikiagoak badira, udalak emandako diru-laguntzaren zenbatekoa doituko du; horretarako, diru-laguntza ematean ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko ditu eta, edonola ere, irizpide horiek proportzionaltasun printzipioa bete beharko dute.

Datuen isilpeotasuna

Prestazioak jasotzeko betekizunak betetzen direla eta oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko nahitaezko datuak baino ez zaizkie eskatuko mantenurako udal laguntzen programaren barruko diru-laguntzen eskatzaileei, onuradunei edota euren BUko gainerako kideei.

Laudio, 2018ko martxoaren 13a

Alkatea

JON IÑAKI URKIXO ORUETA